


Maiatzaren 4an hasiko da Udabarria Bertsotan, Bizkaiko Txapelketarako sailkapen fasea

*Zortzi saiok osatuko dute fase hau eta 48 bertsolarik kantatuko dute;
Sarreraren salmenta apirilean irekiko da.*

Udazkenean jokatuko da Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2023, baina aurretik Udabarria Bertsotan egingo da, txapelketarako baliagarria den sailkapen fasea.

Udabarria Bertsotan sailkapen fasean 48 bertsolarik eman dute izena. Aipatzekoa da Bizkaiko eskualde guztiek daukatela ordezkaritza. Kopuru hori kontuan hartuta, zortzi saio egongo dira fase honetan, sei bertsolarikoak.



Bertsolariak A eta B multzoetan banatuko dira eta zortzi saio horiek lau egunetan jokatuco dira: egun eta ordu berean, herri desberdinetan saio bi egingo dira. Horrela, lau egunetan egingo dira zortzi saioak.

SAIOAK

Aipatu bezala, Udabarria Bertsotan fasean 8 saio egongo dira, lau egunetan. Egun bakoitzean saio bi jokatu dira, leku bitan, baina ordu berean. Saio guztiak izango dira 18:30ean.

EGUNA	LEKUA	BERTSOLARIAK
Maiatzak 4 A MULTZOA	URDULIZ Kultur Etxea 18:30	Aissa Intxausti Aburruza (Lekeitio) Beñat Bilbao Landa (Gernika-Lumo) Igor Galarza Intxausti (Abadiño) Illart Gumuzio Larrazabal (Igorre) Jone Larrinaga Dañobeitia (Mungia) Maider Altuna Urbina (Arrigorriaga)
Maiatzak 4 B MULTZOA	DURANGO Plateruena Kultur Aterpea 18:30	Araitz Katarain Mugarza (Mallabia) Arkaitz Zipitria Mendizabal (Arrigorriaga) Bikain Urkiri Etxebarria (Ondarroa) Imanol Arrutia Azkueta (Zalla) Peru Irastortza Santxo (Getxo) Unai Mendiburu Valor (Algorta)
Maiatzak 11 A MULTZOA	DIMA Eskola 18:30	Aitor Arrutia Azkueta (Orozko) Ander Sarriguarte Garcia (Durango) Iker Garitagoitia Astigarraga (Arrigorriaga) Iñaki Iturriotz Zuluaga (Igorre) Koldo Gezuraga Sejjido (Gernika-Lumo) Peio Lago Iturriaga (Getxo)
Maiatzak 11 B MULTZOA	MUXIKA. Ariatzako eskolak 18:30	Ana Picallo Perez (Bilbo) Ibai Amillategi Omaetxebarria (Gernika-Lumo) Inazio Vidal Gurrutxaga (Leioa) Maite Sarasola Isazelaia (Deustu) Naroa Torralba Rodriguez (Larrabasterra) Peru Vidal Gurrutxaga (Leioa)
Maiatzak 18 A MULTZOA	AULESTI Herriko aretoa 18:30	Asier Galarza Garai (Muxika) Bittor Salterain Etxebarria (Durango) Garazi Navarro Ugarteburu (Amoroto) Ion Barrocal Besga (Trapagaran) Julen Ibarguengoitia Ordorika (Gernika-Lumo) Lurdes Ondaro Mallea (Munitibar)
Maiatzak 18 B MULTZOA	SOPELA Kurtzio Kultur Etxea 18:30	Ander Ezeiza Arana (Barakaldo) Ander Elorriaga Aresti (Durango) Iker Uriarte Urrutia (Bermeo) Koldo Muñiz Aldamizetxebarria (Ibarrangelu) Mikel Goiriena Larrazabal (Mungia) Mikel Retolaza Etxebarria (Busturia)
Maiatzak 25 A MULTZOA	BUSTURIA Kultur Etxea (Altamira) 18:30	Asier Alcedo Cano (Portugalete) Eneko Aldana Carrasco (Forua) Irene Basagoiti Agirre (Ermua) Izaro Bilbao Arostegi (Mungia) Janire Arizabalaga Munduate (Gautegiz-Arteaga) Nagore Beitia Telletxea (Bermeo)
Maiatzak 25 B MULTZOA	ZALLA. El Longar Jauregiko Kapera (Ibarra) 18:30	Ander Aldazabal Olabarri (Zornotza) Bittor Altube Sarrionandia (Abadiño) Enare Muniategi Etxabe (Gautegiz-Arteaga) Garikoitz Sarriugarte Onaindia (Zaldibar) Iruri Altzerreka Martinez (Garai) Jokin Ansotegi Vallejo de Olejua (Gernika-Lumo)

TALDE TEKNIKOAK

Saioen antolakuntzan jende askok parte hartzen du. Bertsolariak kantuan aritzeko, aurretiaz lan handia egin behar izaten da eta, horretarako, talde teknikoak osatzen dira. Hurrengoak dira partaideak:

Talde Antolatzailea

Ainhoa Arregi Elosua (Bilbo), Ainhoa Markinez Arruza (Bilbo), Arkaitz Zipitria Mendizabal (Arrigorriaga), Asier Galarza Garai (Muxika), Belate Olabarria Astobiza (Orozko), Fernan Otsoa de Zabalegi Mugeta (Bilbo), Igor Menika Bengoetxea (Arantzazu), Illart Gumuzio Larrazabal (Igorre), Ione Narbaiza Gallastegi (Abadiño), Itziar Basterretxea Olarreaga (Ondarroa), Joseba Etxebarria Uriarte (Larrabetzu), Maddi Ibaibarriaga Zubikarai (Markina-Xemein), Maria Ortega Zubiate (Markina-Xemein) eta Miriam Juaristi Urizar (Zaldibar).

Komunikazio Taldea

Eider Gallastegi Agirrebeitia (Mallabia), Igor Galarza Intxausti (Abadiño), Ione Narbaiza Gallastegi (Abadiño), Janire Arrizabalaga Munduate (Gauegiz-Arteaga), Maddi Ibaibarriaga Zubikarai (Markina-Xemein), Maialen Ugarria Astobiza (Orozko), Maria Ortega Zubiate (Markina-Xemein) eta Zihara Jainaga Larrinaga (Gernika-Lumo).

Gai-jartzaile Taldea

Ainhoa Urien Telletxe (Abadiño), Amaia Ugalde Begoña (Elorrio), Beñat Vidal Gurrutxaga (Leioa), Idoia Anzorandia Kareaga (Barakaldo), Igor Menika Bengoetxea (Arantzazu), Itxaro Juaristi Olaetxea (Abadiño), Olatz Larrinaga Caballero (Algorta) eta Zihara Jainaga Larrinaga (Gernika-Lumo).

Epaile Taldea

Ainhoa Arregi Elosua (Bilbo), Ander Arrien Aspiazu (Gernika-Lumo), Ander Txakartegi Basterretxea (Berriatua), Ariane Elejabarrieta Amorrortu (Lemoa) – idazkaria-, Beñat Romero Maguregi (Zornotza), Garazi Mendoza Agirre (Mungia), Graxi Arregi Leonardo (Markina-Xemein), Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa (Gernika-Lumo), Itziar Basterretxea Olarreaga (Ondarroa) –idazkaria-, Joseba Santxo Uriarte (Getxo), Josu Telleria Uriarte (Bilbo), Jurgi Fuentes Goikoetxea (Mungia), Leire Etxebarria Gaztelu (Larrabetzu), Mirari Azula Aurrekoetxea (Lekeitio) eta Miriam Juaristi Urizar (Zaldibar).

SARREREN SALMENTA

Sailkapen faseko sarrerak apirilean jarriko dira salgai eta Internet bidez lortu ahal izango dira ondorengo helbidean:

www.bertsosarrerak.eus

Saioaren egunean sarrerarik geratzen bada, txarteldegia zabalduko da 18:00etan.

Prezioa: 3 euro; bazkideek, 2 euro; 18 urtetik beherakoek, doan.

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2023

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa urrian hasiko da. Sei kanporaketa, hiru finalaurreko eta finala izango ditu. Kanporaketetara 2018ko finalistak eta 2021ean finalaurrekoetan kantatu zuten bertsolariak sartuko dira. 36 lagunek parte hartuko dute fase horretan (2018ko zenbat finalistak eta 2021eko zenbat final aurrekoetako bertsolarik izena ematen duten arabera). Finalaurrekoetan 2021ean finalista izandakoak sartuko dira.

Finala abenduaren 16an izango da, Bilbao Arenan (Miribilla).

Udabarria Bertsotan sailkapen fasea:

- **Sailkatze saioak:** 8 saio 4 egunetan, 6 bertsolari saioko.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa:

- **Kanporaketak:** 6 kanporaketa, 6 bertsolari saioko. Zuzenean 2018ko finalistak eta 2021eko final aurrekoetako bertsolariak.
- **Finalaurrekoak:** 3 finalaurreko, 6 bertsolari saioko. Zuzenean 2021eko finalistak.
- **Finala:** 8 bertsolari.

INFORMAZIO BIDEAK

Sailkapen faseari buruzko informazioa hainbat bidetatik eskura daiteke.

- Webgunea: <https://www.bertsozale.eus/eu/bizkaia/udabarria-bertsotan-2023>
- Sare sozialak:
 - Facebooken Bizkaiko Bertsozale Elkartaren orrialdea
 - Twitter: Bizkaiko Bertsozale Elkartea (@bbertsozale)
#udabarriabertsotan2023
 - Instagramen Bizkaiko Bertsozale Elkartaren kontua
- Kontaktua: bizkaikotxapelketa@bertsozale.eus